

## BASOKA 2020

Miramongo anfiteatroa  
(Pakea Plaza 22-20009 Donostia)

Iraila 05, larunbata

16:30 – 21:30

Doan

**2020ko irailaren 5ean, Miramonen, egingo den Indie folk musika jaialdia da Basoka.** Seigarren edizioa izango den arren, lehen aldiz izango du jaialdi autonomoaren izaera.

COVID 19-tik babesteko beharrezko neurriei erantzunez, edizio honetan Miramongo basotik **anfiteatro ezagunera lekualdatu da**, jatorrizko kokapenetik oso gertu.

Basoka 2015eko herritarren partaidetzarako Olatu Talka jaialdiaren programazioaren barruan sortu zen. Bere lehen ediziotik jaialdiko jarduerarik preziatuenetako bat bihurtu zen, eta, bost edizioetan zehar, musika "akustikoan" eta **Indie folk** soinuak gustuko dituztenentzako hitzordu gogokoenetariko baten moduan mantendu da.

Olatu Talka jaialdiaren hamargarren eta azken edizioaren ostean, **Donostia Kulturak Basoka DKluba** musika zirkuituan integratu eta berezko izaera duen jaialdi bihurtzearen aldeko apustua egin du.

### Basokaren jatorria

Basoka "munduko jaialdirik txikiena" izatearen premisapean jaio zen. Kontzertu eta jaialdi handiak musika mota batzuk esperimentatzeko ingurune egokienak izatetik oso urrun zeudela iruditzen zitzaigun.

Horregatik, gure proposamenak **ikusleen, ingurunearen eta artisten arteko harreman estua bultzatu nahi du**. Ahalik eta errespeturik handienaz gozatzea, hots eta isiltasun bakoitzaren kontzientzia eta presentzia izatea. Basoka ez da modako taldeen abestiak dantzatzeko eta lagun artean abesteko jaialdia.

Orain arte egindako bost edizioetan, bertaratutako ikusleen eta artisten aldetik jaso dugun balorazioa oso positiboa izan da. **Egiatzatu dugu musikak, lekuak eta publikoak bat egiten dutenean, kontzertuak benetan berezi bihurtzen dituen magia mota hori sortzen dela.**

Gure ustez, Basokan **esperientzia horren kalitateari eman behar zaio lehentasuna** eta nahiz eta pandemiagatik lekuz aldatu behar izan, anfiteatroa basora gerturatzen gaituen leiho handi bat dela sentitzen dugu.

## Programazioa

**Doako sarrera** duen eta egunez izango den jaialdia da, **arratsaldeko 16:30ean hasi eta 21:30ean amaituko dena.**

Hainbat jatorri eta estiloko zazpi musika proiektu azalduko dira anfiteatroaren harmaila aldapatsuek eta basoak osatzen duten agertoki paregabeen.

**Sara Zozaya, Elena Setien & Joseba Irazoki, Charly eta Amateurren** tokiko proposamenez gozatzeko aukera izango dugu, eta, horiez gain, **Joe Wilkes** britainiarra, **El Largo Adiós** hirukote gaztelar-frantziarra eta Marta Reguera bilbotarra buru duten **RO-E** suediarrek bisitatuko gaituzte.

Iraupen laburreko zazpi kontzertu izango dira eta ikusleek aurkitzeke dagoen soinu-mapa intimo eta askotariko baten zehar bidaiatzeko aukera izango dute.

Emaldien aurreikusitako ordutegiak honako hauek dira:

16:30 - Charly

17:00 - El largo Adiós

17:45 - Sara Zozaya

18:30 - Amateur

19:15 - Elena Setién & Joseba Irazoki

20:00 - Joe Wilkes

20:45 - RO-E

Programazioa Edorta Subijanak koordinatu du.

## Publikoa

Basokaren edizio guztietan, **publikoaren portaera erabakigarria izan da lehenago aipatutako konexio giroa lortzeko.** Nabarmentzekoa da aurreko edizioetan jaialdia amaitu ondoren basoa beti oso egoera onean geratu dela. Gauera arte luzatu zen kasuetan ere, ez zen jasotzeko zaborrik geratu.

Emanaldietan ere isiltasuna errespetatu zen publikoaren aldetik eta gure inguruan hori lortzea benetan zaila da, batez ere doako kontzertuak direnean.

2020ko edizioari begira publikoaren hazkundera aurreikusten dugun arren, **inguruarekiko eta musikarekiko errespetua sustatzen jarraituko dugu.**

Era berean, COVID 19 aren harira ezarritako osasun eta higiene arauak une oro errespetatu beharko dira, eta antolakuntzak hiritarren laguntza eskatuko du bertaratutakoen esperientzia onena ziurtatzeko.

## Jakin beharreko hainbat kontu

- Kontzertuak **aire zabalean** izango dira, **esparru mugatu** batean, **sarrera kontrolatuarekin** eta **600 laguneko edukiera mugatua** izango du kopuru bikoitza baino gehiago har dezakeen espazioa bada ere.
- Parkera **oinez edo garraio publikoan etortzea gomendatzen** da, inguruan ibilgailuen pilaketa saihesteko.
- **Helbide elektronikoa edo telefonoa** eskatuko dira, bertaratutakoen erregistroa izateko.
- **Eserlekuak zenbakituak izango dira** eta **iritsiera-ordenan esleituko** dira. Harmailetan plaza libreak dauden heinean baimenduko da ikusle berrien txandakatzea.
- Kontzertuetan **ezingo da zutik egon**, eta **edariak eta janariak eserlekuan bertan kontsumituko dira**. Bi *food-truck* egongo dira janari eta edari beharrak asetzeko.
- **Garaiz iristea gomendatzen da**, eserlekuetara ahalik eta erosoan iristeko. Ilaran itxaroten den bitartean segurtasun distantzia mantendu beharko da.
- **Jaialditik atera ezkeru, eserlekuak beste ikusle batzuek bete ahal izango dituzte.**
- **Maskara erabiltzea nahitaezkoa** izango da 6 urtetik aurrera. Sarreran gel hidroalkoholikoa ere erabilgarri izango da.
- **Familia edo tutoreak arduratuko dira adingabeek segurtasun-arau guztiak betetzeaz.** Bete ezean, esparrutik atera egin beharko dira.
- **Harmailen hustea mailaka egingo da**, antolatzaileen argibideei jarraituz.

## ARTISTAK

### Charly

Hirian ongien gordetako sekretuetako bat. Fina eta dotorea, melodiarako berezko usaimena eta benetako *outsider* espirtua dituen, **Charlyk** hiriko hainbat musikari belaunaldien begirunea lortu du.

Besteak beste, 90eko hamarkadan *Amor a Traición* taldean lagun izan zuen hil berri den Rafael Berriorena edo Los Bracco taldekoena, zeinen abeslariarekin *Charly & Pavlyuchenko* bikote sailkaezina osatzen baitu. Oraingo honetan, bakarka, Charlyk bere alderdirik pertsonalena aurkeztuko digu.

### El Largo Adiós

El Largo Adiós, batez ere, Theo, Javier eta Feliperen arteko topaketa bat da. Mugaz gaindiko hirukote bat da, frantses kantagintzaren leuntasunean, latindar pultsuan eta Mediterraneoko zurrumurruaren artean dabilena. Hiru ahots biluzik, bi gitarra eta kontrabaxu batez lagunduta, soinu-frekuentzien artean nabigatzen dute, xumetasunez eta zirraraz beteriko mezua helarazteko. "[Larmes en Couleurs](#)", euren lehen disko luze harrigarria aurkeztuko dute, soinu delikatu eta intimista baten aldeko apustua eginez.

### Sara Zozaya

[Sara Zozaya](#) bere azken lana, '(I)', aurkeztera datorkigu. Folk-pop, lo-fi eta beat elektronikoeekin uztartzen du bere unibertsoa aipatutako lanean, non artistak bere giro ilun eta zintzoari eusten baitio. Oso ekoizpen zaindua du, bi artista-belaunaldiren arteko zubi perfektu bihurtzen duen sonoritatearekin.

Bertan, Benito Lertxundiren laguntza jaso du 'Benetan' kantuan. '(I)' nazioarteko soinu modernoan eta euskal musika tradizioaren arteko nahasketa da. Eta horrek, zalantzarik gabe, inguruko artista apurtzaileenetako bat bihurtzen du.

### Amateur

La Buena Vida desagertu ondoren, **Mikel Aguirre**, **Cheli Lanzagorta** eta **Iñaki de Lucas**en proposamen berriak erakutsi zuen "Debut!" disko bikainarekin estatuko talde garrantzitsuenetako bat izan zenaren dotorezia eta egiten jakitea mantentzen zuela.

Gaur egun grabazio prozesuan murgilduta dagoen **Amateurrek** bigarren diskoa osatuko duten abestien aurrerapena eskainiko digu.

### Elena Setien & Joseba Irazoki

Tokiko eszenako bi balio sendoenetakoek duten talentu ikaragarria elkartu egin da proiektu musikal berri bat egiteko. [Elena Setien](#) multi-instrumentista eta abeslaria da, itxuraz elementalak diren egituretatik abiatuta ñabarduraz beteriko konposizioak sortzeko gai dena. [Joseba Irazoki](#) gitarra-jotzaile elektrizatailea da, eta bere musika, birtuosismo antzurik gabea, aldi berean primitiboa eta esperimentalta da. Euren lan berriaren aurrerapena eskainiko digute.

## Joe Wilkes

[Joe Wilkes](#) britainiarrek kultuko musikari horietako baten pausoak jarraitzen ditu, bizirik zegoela madarikatua eta urte batzuk geroago jaso zuena aitortpena, Nick Drake. Folk-a intimista jorratzen du eta ahotsa du sakona, zintzotasunez iritsi eta naturaltasunez hunkitzen zaituen horietakoa.

Horrelakoxeak dira bere abestiak ere; sakontasun eta sinesgarritasun biribilekoak. Hori guztia bikain gauzatua eta 1960ko eta 1970eko hamarkadetako folk-rock eta musika akustikoaren tradizio onenaren berotasun berezia duena.

Musikari bereziak, handitasun-aura moduko bat daramatenak, baina gehiengoarentzat oharkabean pasatzen direnak. Pena beraiengatik, baina luxu bat gozatzen duenarentzat.

## RO-E

Marta Reguera, Suedian bizi den bilbotarra, [RO-E](#) proiektuaren atzean dagoen pertsona da (Mies van der Rohe, arkitektura modernoaren aitzindarietako baten abizenetik eratorria). Iragan akustikoarekin, Ro-E Suediara joan zen The Knife eta Wildbirds & Peacedrums bezalako artistek inspiratuta eta bertan ekoizle rola deskubritu zuen. Horrela, bere soinua propioa garatu zuen, abangoardiako pop-aren eta elektronika esperimentalaren artean mugitzen dena.

Bere burua "kantautore elektronikotzat" hartzen du eta orain arte bi EP argitaratu ditu: "Tasty" (Cherish Label, 17) eta "Itch" (Cherish Label, 17).

Oraingo honetan, berarekin datoz Suediatik Maja Horváth (biolina, koruak) eta August Glännestrand (bateria), estreinako disko luzea izango den "[Allures](#)"-eko material berria aurkeztera. Joan den maiatzean argitaratu zuen lehen aurrerapena, "[Man Fatale](#)" izenekoa, Suediako telebista publikoan premiere-a izan zuena.